Artearen begiradaren bilaketa ebaluatzeko errubrika

Ebaluatutako taldea: _____

Errubrika betetzen duenaren izena: _____

MAILA	4 Bikain	3 Oso ongi	2 Nahiko	1 Gutxiegi
Paisaia artean	Proposatutako iturri guztietan bilatu da, bilaketa termino egokiak erabilita, eta bilaketen emaitzak idatzi dira. Gainera, bestelako iturriak erabili dira. Aztertutako paisaiari zuzenean lotutako hainbat artelan aurkitu da, diziplina desberdinetakoak.	Proposatutako iturri ia guztietan bilatu da, bilaketa termino egokiak erabilita, eta bilaketen emaitzak idatzi dira. Gainera, bestelako iturri bat erabili da. Aztertutako paisaiari zuzenean lotutako artelan bat baino gehiago aurkitu da.	Proposatutako iturri gehienetan bilatu da, batzuetan bilaketa termino egokiak erabili ez diren arren, eta bilaketen emaitzak idatzi dira. Artelan bat behintzat aurkitu da, eta aztertutako paisaiarekin duen lotura justifikatu da.	Proposatutako iturrietan egindako bilaketen emaitzak ez dira idatzi. Ez da aztertutako paisaiari lotutako artelanik aurkeztu, edo loturaren justifikazioa zehaztugabea eta urria da.
Artea paisaian	Aztertutako paisaian kokaturik dauden eta paisaiarekin elkarreragina duten artelanak nola bilatu diren dokumentatu da. Bilaketaren emaitzak arrazoitu dira, Lan Art-ari buruz proposatutako iturrietatik ateratako argudioak modu egokian erabilita, eta argudio eta/edo iturri gehigarriak erabilita.	Aztertutako paisaian kokaturik dauden eta paisaiarekin elkarreragina duten artelanak nola bilatu diren dokumentatu da. Bilaketaren emaitzak arrazoitu dira, Lan Art-ari buruz proposatutako iturrietatik ateratako argudioak modu egokian erabilita.	Aztertutako paisaian kokaturik dauden eta paisaiarekin elkarreragina duten artelanak nola bilatu diren dokumentatu da. Bilaketaren emaitzak modu laburrean arrazoitu dira, Lan Art-ari buruz proposatutako iturrietatik ateratako argudioren bat aipatuta.	Ez da dokumentatu nola bilatu diren aztertutako paisaian kokaturik dauden artelanak, eta paisaiarekin elkarreragina dutenak. Ez da justifikatu bilaketaren emaitza, edo justifikazioa zehaztugabea eta urria da.
Prozesuaren ezaguera	Taldeko kide bakoitza gai da produktuaren edukiei buruzko nahiz berau osatzeko erabilitako prozesuen inguruko galdera guztiei zehaztasunez erantzuteko.	Taldeko kide bakoitza gai da produktuaren edukiei buruzko nahiz berau osatzeko erabilitako prozesuen inguruko galdera gehienei zehaztasunez erantzuteko.	Taldeko kide bakoitza gai da, bere taldekideen laguntzarekin, produktuaren edukiei buruzko nahiz berau osatzeko erabilitako prozesuen inguruko galdera gehienei zehaztasunez erantzuteko.	Badirudi taldeko kide batek edo gehiagok ez dituela produktuaren edukiak edo berau osatzeko erabilitako prozesuak ezagutzen.

CC BY NC SA